

'Mundua aldrebes' jaialdia

Bihar, Uzturpe ikastolan ▶ 6



Korrika Txikiak hainbat herritan, hasierarekin bat

HASIERA ▶ Orreagan hasiko da gaur; Berastegin Korrika Txikia eta bihar, Anoetan eta Lizartzan

SAIOAK ▶ Etzi, antzerkia Iruran; igandean, salmenta Altzon eta hamaiketako Amezketan ▶ 4

Gaur, batzar berezia izango da ikurrinaz

Astibiaren aldeko eskaera ere bada ▶ 7

Rol tradizionalak berdin jarraitzen dutela atera da generoari buruzko lanean

IRURA ▶ Ikasleek generoaz duten egoeraz hausnarketa egin du Ikastolak; alkatea lanari buruz solasean aritu da ikasleekin ▶ 5

Bihar gauean, PiLT eta Izaera taldeak Bonberenean

Etzi, Coilbox eta Anger ariko dira kontzertuan ▶ 2

Erromeria herrikoia eratu du Udaberrik hilaren 19rako ▶ 3

IMANOL GARCIA



'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **UZTARTZA aterpetxe - jatetxean 4 lagunentzako afari eder bat zozketatuko dugu**



MUSIKA ▶

LEIRE MONTES

Bonbereneakoek ez dute atse-denik hartzen, eta kontzertu egitarau aparta antolatzen jarraitzen dute, buru-belarri. As-teburu honetan ere musikaz blai izango dira etxeko txokoa. Eta ez nolanahiko emanaldiekin, gainera. Bihar, PiLT eta Izaera (beheko argazkian) taldeek joko dute, 22:30ean; eta etzi, ordu berean, Coilbox (goiko irudian) eta Anger taldekoak igoko dira taula gainera. Badago zer entzunik, beraz.

PiLT. Mungiaiko taldea da PiLT. Hastapenetik hona, garapen nabarmena izan du. Metal doinuak pop melodiez bustitzen dituzte; baita beste musika estiloen eraginekin ere, psikodelia, esate baterako. Nortasun handiko taldea da PiLT: giroa eta melodia dira, indarrarekin batera, beren izaeraren eta nortasunaren giltza. Hasierako doinuak eta, batez ere, *Game over* bere azken laneko kantak ekarriko dituzte Bonbereneara. Bihar joko dute, 22:30ean, Izaera taldearekin batera.

Izaera. Irungo eta Hondarribiako gazteek osatzen dute Izaera taldea. Duela hiru urte kaleratu zuten maketa, eta ordu-tik ibilbide oparoa izan dute gipuzkoarrek: dagoeneko, 70 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte Euskal Herrian, Herrialde Katalanetan eta Espainian. Gitarrajolea aldatu eta



Badago zer entzunik

Kontzertu apartak antolatu dituzte Bonbereneakoek: bihar, PiLT eta Izaera; Coilbox eta Anger, etzi



gero, bere iraupen luzeko lehen diskoa kaleratu zuen taldeak: *10 programa gaiztokian* izeneko lana. Bonberenea Ekintzak zigiluak ekoiztuta, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean aurkeztu zuten, ia azaroaren 25ean. Bihar eskainiko dute zuzeneko emanaldia Bonberenean, PiLT taldearekin batera, 22:30etik aurrera.

Coilbox. Sakabanatutako 3 Million Eyes taldeko zenbait musikaririk Selfish Gen taldea sortu zuten, 1999an. Hori izan zen Madrilgo Coilbox taldearen oinarria. 2000. urtean beren lehen dabiliko kontzertua eskaini zuten, Skunk D.F. taldearen gonbidat gisa. Oso kritika ona jaso zuten, eta harrezkero, makina bat kontzertu eskaini dituzte. *Metal* arloan trebeak dira madrildarrak, eta *Coilbox 13* bere azken laneko kantak ekarriko dituzte Bonbereneako oholtza gainera. Etzi eskainiko dute emanaldia, 22:30ean, Anger taldearekin.

Anger. Arrasateko Anger taldea ere primeran moldatzen da *metal* estiloko musikan. Eskarmentu handiko musikariak dira, proiektu eta lan askotan aritutakoak, eta emanaldi asko eskaini dituzte. Disko guztietako doinuak, zaharrak eta berriak, joko dituzte arrasatearrek Bonberenea etxean, 22:30ean hasita. Madrilgo Coilbox taldea izango dute bidelagun.

ERLIJOA ▶

Gaur, otoitzaldia Santa Maria parrokian

Garizumako hitzaldiari ari dira egiten, egunotan, Santa Maria parrokian, *Pazko bidean*, *Jesusen jarraitzaile* lelopean. Gaur, otoitzaldia egingo dute, 16:00etan eta 20:00etan, parrokian.

HEZKUNTZA ▶

Aste Santuan ludoteka antolatu du Hirukidek

Aste Santuko oporrak direla eta, ludoteka antolatu dute Hirukide ikastetxean. Gaur eta bihar dira izena emateko azken egunak. Interesa duenak 943 67 39 48 telefono zenbakian jaso ditzake argibide gehiago.

HEZKUNTZA ▶

Dokumentu informatikoak ikastaroa LHIn

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak (LHI) dokumentu informatikoak izeneko ikastaroa eskaintzen du (Word, Excel, Access, Power Point). Astelehenean ostegunera ematen dira eskolak, arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara, hain zuzen ere. Hobetuz-en laguntza dute ikastaroei eta, beraz, doakoak dira. Izena eman nahi duenak ikastetxera jo behar du (Santa Luzia auzoa. 943 65 11 47).

HAUTESKUNDEAK ▶

Aukera Guztiak ekimenaren alde sinadura bilketa

EAEko hauteskundeetan zere errendak aurkeztu ahal izateko, milaka sinadura behar ditu Aukera Guztiak ekimenak. Eskualdean, Tolosan eman daiteke sinadura. Gaur eta bihar dira azken egunak horretarako. Hiru lekutan sina daitezke: Gomez Martiño notariotzan (San Frantzisko ibiltokia 7, 1.), 09:30etik 13:30era eta 16:00etik 19:00etara —ostiral arratsaldean ez dago zabalik—; Larratiz Franco notariotzan (Nafarroa etorbidea 12, 3. B), 09:30etik 13:30era; eta udal-etxean, 08:00etatik 14:00etara.

MINTEGIA ▶

Autonomo eta mikroenpresentzat saioa antolatu du Miramon Enpresa Digitalak

Telefonia mugikorra izango dute hizpide mintegian, hilaren 17an

L. MONTES

Miramón Enpresa Digitalak antolatutako autonomoentzako eta mikroenpresentzako mintegien baitan, beste saio bat eskainiko dute hilaren 17an. Enpresetara aplikatutako telefonia mugikorraren aukerak, horien erabilera eta aplikazio berriak izango dituzte hizpide saio horretan.

«Langile autonomo eta mikroenpresa ugari erabili ohi du telefono mugikorra laneko instrumentu nagusietariko bat balitz bezala; eta, horrenbestez, telefono mugikorra modurik egokienean erabiltzeari esker, abantaila bikainak lor daitezke eta ezinbestekoa izan

daiteke negozioetarako», azaldu dute Miramongoek. Hortaz, «erabilera eta aplikazio berriak ezagutzaraztea» du xede mintegiak.

Izen-ematea zabalik

Saioa doakoa da, eta izena eman edo informazio gehiago jakin nahi duenak 902 252 595 telefono zenbakira dei dezake, edo mezu bat bidali honako helbidera: cursos@miramon-digital.com.

Jardunaldietara joandakoek SPRI eta Enpresa Digitalak argitaratutako Gida Teknologikoen Bildumaren lehen alea jasoko dute, *Zer egin informatika birusen aurka* izenekoak.

Beste hiru mintegi eskainiko ditu Tolosan Miramon Enpresa Digitalak: softwarea eta aplikazio informatikoak alokatzeko zerbitzuak, apirilaren 21ean; finantza entitateetako eragiketarako *on line* egiteko modua, maiatzaren 26an; eta merkataritza elektronikoko sistemak ezartzeko moduan, ekainaren 14an.

Mintegi ziklo hau Gipuzkoa 2005 Ekintza Planaren eta Euskadi Informazioaren Gizarte planaren baitan da —Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituzte plan horiek, hurrenez hurren—. Tolosan bezala, probintziako beste hainbat udalerritan ere antolatu dituzte.

MENDIA ▶

Boi bailarara mendi martxa Aste Santuan, Oargirekin

L. MONTES

Oargi mendi elkarrekin mendi martxa antolatu du Aste Santuko oporraldietarako. Lleidako Piriniotara (Herrialde Katalanak) joango dira, Boi bailarara, hain zuzen ere. Hilaren 24tik 28ra izango da irteera, eta zenbait mendi igo eta ibilaldiak egingo dituzte inguruan.

Mendi irteera antolatzeko joango den jende kopurua «ahal den azkarren» jakin behar dute antolatzaileek. Horregatik, joan nahi duenak izena «lehenbait» eman dezala eskatu dute Oargikoek. Horretarako, 637 83 03 80 telefono zenbakira deitu behar da.

KULTURA ▶

Bigarrenenez izango da erromeria herrikoia Udaberrik antolatuta

Datorren asteko larunbatean, hilak 19, egingo dute herrian zehar; afarirako txartelak salgai jarri dituzte hoge eurotan



Udaberri taldekoek bigarrenenez antolatuko dute aurten erromeria herrikoia; argazkian, iazkoa. G.AZKUE

IRATXE ETXEBESTE

Estreinaokoaren ostean bigarrena omen dator, eta Udaberri dantzari taldekoek jarraipena eman nahi izan diote iaz hasitakoari. Hala, II. Erromeria Herrikoia antolatu dute datorren larunbaterako, hilak 19, Tolosako kaleetan zehar.

Eta aurreko edizioarekin lotura izango duelako, egitaraua iazko bera izango dela iragarri dute antolatzaileek: 18:00etan hasiko da festa handia poteo herrikoiarekin, eta afariarekin amaituko dute euskal jaia. Hala eta guztiz ere, goiz partean ere izango da dantzas gozatzeko aukera, astero-astero Tolosako Udaberri dantzari taldekoek Igarondo igerilekuan duten lokalean ematen dituzten ikastaroetara joaten diren haurrek emanaldia eskainiko dutelako eguerdi aldean herriko hainbat gunetan. Dantza saio horiek girotuko dute, hain zuzen ere, arratsaldean hasiko den festa eguna.

18:00etarako egin dute hiztordua antolatzaileek Plaza

20 EUROTAN

Erromeria herrikoieko afarirako txartelak salgai dira Kimetz eta Garikano dendetan eta Elurra tabernan

Zaharrea. Behin jendea bilduta dagoenean triki-poteoari ekingo diote parte-hartzaileek trikitilarien eta dultzainarien laguntzarekin. 20:30ean, berriz, afaria egingo dute Abastos plazan, eta afalordua trikitilarietako dute, baita ere. Afalostean ere jarraitu egingo du jaiak, Epelde eta Larrañaga trikitilariak ariko direlako Abastos plaza bertako giroa alaitzen.

Udaberri dantzari taldeko kideek diote asmoa urtez urte ekimen hori antolatzen jarraitzea dela, aspaldian «gure ohitura zaharrak galtzen ari direlako», eta «plazako dantzak, eta, orokorrean, garai batean herri guztietan ohiko ziren euskal jaiak berreskuratu beharrekoak direla iruditzen zaigulako». Iaz bezala, martxo bukatuaren egin nahi zuten ekitaldia aurten ere, baina Aste Santuko oporraldia dela-eta aurreratu egin behar izan dute hilaren 19ra, datorren asteko larunbaterara. Gogoratu deialdi irekia egin dutela antolatzaileek, eta, hortaz, edonork hartu ahal izango duela parte bertan.

Afarirako txartelak salgai

Abastos plazan egingo duten afarirako txartelak salgai jarri dituzte Udaberri dantzari taldekoek honezkeroko Tolosako Kimetz arropa dendan, Garikano zapata dendan eta Elurra ta-

bernan eskuratu ahal izango dituzte hala nahi dutenek 20 eurotan. Afariko menua zehaztuta dute antolatzaileek dagoeneko: arrain pastela, patatak errioxar erara, koskorra saltsan, tarta, edaria, kafea eta kopa izango direla iragarri dute. Iaz 100 lagun inguruk egin zuten bat euskal jaiaren baitako afarian, eta aurten kopuru hori gailentzea «polit» izango litzatekeela esan dute Udaberri dantzari taldekoek.

2007. urtean 50. urteurrena beteko du Tolosako Udaberri dantzari taldeak. Ordura arte euskal jai herriko hori mantentzen badute, jendeak festa hori ospatzeko ohitura hartuko duela irizten diote dantza taldekoek, eta horixe ere badela festa egun hori antolatzeko arrazoietako bat. 50. urtemuga modu berezian ospatu nahi dute dantzarietako, eta ekitaldiak prestatzeko Udaberrin garai batean aritutako kideak eta gaur egungoak batuko dituen batzordea sortu nahi dute. «Hilaren 19ko afaria aukera polita izan daiteke horretarako».

Afalorduan Abastos plazan berogailua jarriko dutela, eta, beraz, hotza aldetik arazorik izango ez dela esan dute antolatzaileek: «Iaz kendu egin behar izan genuen azkenean, bero handia zegoelako». Udaberriko kideek, bestalde, erromerira artzain-andrez jantzita joatea eskatu dute.

EUSKAL PRESOK ▶

Bat egingo dute presoan borrokaldiarekin etzi

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deialdia egin du errepideetan banderolekin jartzeko

I. ETXEBESTE

Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deialdia egin die herritar guztiei euskal preso politikoak Espainia-ko eta Frantziako espetxeetan egiten ari diren borrokaldiarekin bat egin dezaten, eta eskualde mailako ekimena antolatu dute horretarako. Larunbatean, 12:00ak eta 13:00ak bitartean errepidera aterako dira euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko Aduna eta Alegia artean. Eskualde osoa hartu nahi dute ekimen horrekin, eta eskualde osoko herritarrei egin diete bertara biltzeko deia.

Hala, hitzordua egin dute antolatzaileek herri bakoitzean. Villabona-Aiztondokoen-tzat bi leku zehaztu dituzte: Adunako zubiaren ondoan, bata, eta Villabonako gasolindegirekin parean —N-1 errepidean, Gasteizerako norabidean—, bestea. Bi leku horietara 11:30erako agertzeko eskatu dute Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek. Tolosakoak, berriz, hiru gune ezberdinetan elkartzeko dira: Amaro-zko biribilgunean, Santa Luzia auzoan eta Santa Klaran.

Ibarraldeko herritarrek Tolosako Benta Aundin bilduko dira, eta Alegia ingurukoak, aldi, ohiko leku eta orduan. Antolatzaileek esan dutenez, «oso garrantzitsua» da ekimenean parte hartzekoak diren herritarrek 11:30erako puntuan zehaztutako lekuetara joatea, orduan erabakiko dutelako bakoitzak nora joan beharko duen.

Era berean, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko banderolak eta ikurrinak eramateko eskatu dute Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek. Antolatzaileek eraman-gu omen dituzte bakarren batzuk, baina herritarrek ere eramatea komenigarria dela diote, modu horretara oihartzun handiagoa izango duela-ko ekimenaren aldarriak.

Espainiako eta Frantziako kartzeletan dituzten euskal preso politikoak haien esku-bideak aldarrikatzeko txandakako itxialdian diren bitartean haien borrokarekin bat egiteak «berebiziko garrantzia» duela irizten diote Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek, eta, horregatik, ekimenak antolatzen jarraituko dutela iragarri dute.

GAZTERIA ▶

Zinema emanaldia Gazte Topagunean igandean

17:00etan hasiko da; ekitaldi ugari ari dira prestatzen Aste Santuko opor egunetarako

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria Departamendukoak askotariko ekitaldiak ari dira prestatzen 13 eta 17 urte bitarteko gaztetxoentzat. Asteburu honetarako, esaterako, zinema emanaldia prestatu dute: igandean, 17:00etan Gazte Topagunean Kultur Etxean duen lokalera agertzen diren gaztetxoek izango dute filma ikusteko aukera, bertako dinamizatzaileekin batera.

Bestalde, Aste Santuko oporraldirako hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosako Gazteria

departamenduak Gazte Topagunearen bitartez: besteak beste, tailerrak —brotxeak, kamiseta pertsonalak, komiki karterak...—, 14 urtetik gorakoztat Biarritzeko karts-etara irteera, *Play Station* erraldoia... egiteko aukera izango dute gaztetxoek egun horietan.

Egitarau zehatzari buruzko informazioa ikastetxeetan, Gazte Informazio bulegoan edota larunbatetan eta igandean, 16:30ak eta 20:30ak bitartean Gazte Topagunearen lokalean aurkituko dute hala nahi dutenek.

EUSKARA ▶

Korrikaren hasierarekin bat eginez hainbat herritan egingo dira ekitaldiak

Asteburua bitarte hainbat ekitaldi egingo dira Korrikaren 14arekin bat egiteko; hurrengo astean, berriz, Korrika Txikiak izango dira eskualdeko herrietan

NOELIA LATABURU
IMANOL GARCIA

Badator bai euskararen aldeko lasterketa abiada bizian. Gaur Orreagan hasi eta martxoaren 20a bitartean Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatuko ditu Korrikaren 14. edizioak, *Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai* lelopean eta bere omenez, zenbait ekitaldi antolatuta dituzte aste honetarako, bai eta datorrenerako.

Korrika goizaldeko ordu txikietan pasako delako eskualdetik, Anoetako Korrika Batzordeak herrian beren korrika antolatuta du bihar arratsalderako. Herriko erakunde eta gizarte eragile guztiek hartuko dute parte: Udalak, Anoetarrok Auzolanean plataformak, Ikastolak, Alkartasuna jubilatuen elkarteak, Kuku elkarteak... Anoetako Ikastolan hasiko dira 18:30ean eta herri guztia zeharkatuko dute plazan amaitzeko. Idatzi bat irakurri ondoren, musika eskolakoek alaituko dute giroa eta pintxoak jateko aukera izango da. Korrikaren materiala erosteko mahai bat ere jarriko da. Antolatzailerek deialdia egin diete parte-hartzaile guztiei 18:00etan plazan biltzeko, bakoitzari ibilbidean izango duen lekua zehazteko. Anoetako Ikastolak ere Korrika Txikia egingo du bihar. 15:30etan aterako da Ikastolatik eta hauek ere plazan amaituko dute, merienda batekin. Ikastolatik herritarrak parte hartzera animatzen dituzte, bai Korrika Txikian, bai ondorengo korrika herrikoian.



Amezketan aurreko astean Korrikaren gainean Joxe Leon Otañok emandako hitzaldia. N. LATABURU

Lizartzan Korrika Txikia egingo dute bihar arratsaldeko 16:00ak aldera. eta bertan parte hartu ahal izango dute eskolakoek eta nahi duten herritarrek. Berastegin, berriz, Korrika Txikia gaur egingo dute, Urepel elkarteak antolatuta, herrian barrena, 18:30etik aurrera. Ondoren, *lunch*-a egingo dute Urepelen bertan.

Amezketan ere antolatuta dituzte hainbat ekitaldi eta gaur izango diren bileran, 20:30ean gela polibalentean, lotuko dituzte xehetasun guztiak. Ahalik eta jende gehien behar dela jakinarazi dute antolatzailerek eta, beraz, bilerara aurkezteko deialdia egin dute. Egiteke dauden ekitaldiak igandean eta asteartean izango dira, hamaitzekoak eta Korrika Txikia, hurrenez hurren. Baina batzordeak planifikaturiko ekitaldietan lehena dagoeneko egin zuten,

Joxe Leon Otañoren hitzaldia, hain zuzen ere. Hogeita hamar lagun inguru bildu ziren Amezketako gela polibalentean eta «jendearen partaidetza ikaragarria izan zen», azaldu zuen Aritz Larretak. Leon Otañok 10-15 minutuko hitz saioa egin zuen, Korrikaren inguruan. Horren ostean, galderen txanda heldu zen. «AEKK ba al du zerikusirik Kontseiluaren sorrerarekin? Zein da euskara ikasteko motibaziorik hobereena? Alfabetatzea beharrezko al da?»; hauek izan ziren, besteak beste, jendearen zalantzak.

Altzon asteburuan hasiko dira Korrikaren aldeko giroa

berotzen eta herriko plazan mahai bat jarriko dute igande eguerdian, materiala saltzeko.

Irurakoak ere ez dira atzean geratu eta Korrikaren barnean ekitaldiak antolatuta dituzte. Guztietan lehena etzi izango da, 18:00etan trinketea *Hitzak patriketan* antzezlanaren taularatu baitute, Txalo taldearen eskutik. Halaber, Korrika 14ko materiala izango da salgai bertan. Irurako umeekin beste ekimena hasiko da gaur, Korrikaren hasierarekin bat eginez. Euskal Herriko mapak jarriko dituzte ikastolan eta udaletxean eta egunero umeei Korrikaren ibilaldia markatuko dute

KORRIKA ▶

Hainbat ekitaldi antolatuta dituzte *Korrika* 14 dela eta.

ALTZO

Martxoak 13. Mahai bat jarriko da herriko plazan materiala saltzeko.

AMEZKETA

Gaur. Korrika Batzordeko bilera.

Martxoak 13. Hamaitzekoak herriko plazan.

ANOETA

Bihar. Anoetako Herri Korrika Anoetako Ikastolatik irtengo da 18:30ean. Korrika Txikia 15:30ean.

BERASTEGI

Gaur. Urepel elkarteak antolatuta, Korrika Txikia herrian 18:30ean; ondoren, *lunch*-a Urepel elkartearen.

IRURA

Etzi. 18:00etan *Hitzak patriketan* antzezlanaren Txalo taldearen eskutik trinketea. Bertan Korrikarako materiala jarriko da salgai.

LIZARTZA.

Bihar. Korrika Txikia 16:00ak aldera irtengo da herrian barrena.

mapa hauetan, hiru eta bost urte bitartekoak ikastolako mapan; sei eta zortzi bitartekoak, berriz, udaletxeokan. Era berean, Korrikak igarotzen dituen herrien historiaren gaineko galderen erantzunak topatu beharko dituzte gaztetxoek egunero.

ANOETA ▶ KULTURA

Bertsorik gabeko antzerki herrikoia egiteko deialdia

Bilera egingo da gaur 19:30ean udaletxean

I. GARCIA

Dantza-sokaren ekitaldiaren ondoren, Anoetarrok Auzolanean plataformatik «bertso-antzerkiaren hutsunea betetzeko proposamen berria» azaldu dute. Antzerkia ez da bertsotan egingo, formatu soillean baizik. Gaur, bilera egingo

da udaletxean, 19:30ean. Antzerkian parte hartu nahi duten guztiak gonbidatuta daude bilera horretara, bai aurreko aldietan parte hartu zutenak, bai gainerakoak. «Ez dugunez antzerkirik gabeko herririk nahi, bertsorik gabeko antzerkia» egiteko proposamena luzatzen dute plataformatik.

LARRAUL ▶

Mal de muchos taldearen kontzertua Herri Ostatuan

I. GARCIA

Larraulgo Herri Ostatuan kontzertua eskainiko du bihar, 22:00etan, Mal de muchos taldeak. *Pop-rock* estiloko musika egingen dute, soinu garbiarekin. Taldeak berezitasun bat du, instrumentuen artean txelo bat dagoelako.

31
aretoaren inaugurazioko kontzertu erraldoia Lekunberrin
Martxoak 19an 22:00etan
Orishas taldearen disko berriaren aurkezpena eta artista gonbidatua
Sarearen salmenta: 12 € aurretik-15 € leihatilan
Iruña: Typo dendak, Xalbador Megadenda / Lekunberri: Amalur taberna
Tolosan: Oskarbi kafetegia / Zizurkil: Aurrera taberna / Donostia: Bilintz

IRURA ▶ HEZKUNTZA

Rolek berdin jarraitzen dute

Irurako Ikastolan ikasleek generoari buruz duten egoera hausnartzeko asmoz lan bat burutu dute, rol tradizionalak indarrean daudela ondorioztatuz

IMANOL GARCIA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren baitan Irurako Ikastolan, bertan eratuta dagoen Baloreen Taldeak antolatuta lan bat burutu dute, ikasleek generoari buruz duten egoeraz hausnartzeko. Lanaren ondorio nagusia gizonezko eta emakumezkoen «rol tradizionalak bere horretan jarraitzen dutela da», Josune Aiestaran Ikastolako zuzendariak azaldu zionez Hitzari. «Eta beraz, oraindik lan asko dago egiteko»

Burututako lan honetan, Haur Hezkuntzakoei —hirutik bost urte bitarteko haurrak— gurasoek etxean egiten dutenaz galdetu zieten. Horrela, zeinek oheratzen dituen, norekin joaten diren ikastolara edota otorduetan norik laguntzen dituen galdetu zieten. «34 umeetatik bakarria izan da aita lanean jarri duena. Beste bederatzia aita amaren laguntzaile aritzen dira eta beraz, 24 etxetan lan guztiak amaren esku daude», azaldu zuen zuzendariak.

Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoei —sei eta zazpi urtekoak— jantzi kolore gustukoenei eta ez gustukoenei buruz galdetu zieten. «Nesken artean arrox



Ikastolako haur batzuk udaletxeko areto nagusian, zozketatu behar ziren opariei begira I. GARCIA.

agertzen da. Ille horia izatea ere gustuko dute eta orokorrean kolore argiak gustatzen zaizkie. Mutilek, berriz, futbol taldeekin zerikusia duten koloreak dituzte gustuko».

Ikastolako azken mailakoei, zortzi urte dituztenei, gustuko opariei buruz galdetu zieten. Orokorrean teknologi berriekin ikusi behar dutenak aukeratu zituzten: ordenagailuak, mugikorrak, *game boy*-ak... «Kuriosoa da neskek panpinak baztertu dituztela aukeraketan, baina azaleko zerbait bezala.

Etxean jolasten jarraitzen dute beraiekin eta Gabonetan oraindik eskatzen dituzte. Bestalde, mutiletan aukeraketetan ez dira panpinak inondik agertzen, Haur Hezkuntzaren garaian beraiekin jolasten bazuten ere», adierazi zuen zuzendariak.

Gai guzti hauen inguruan marrazkiak egin dituzte haurrek. Lan guzti honetan Ikastolako Udalararen partaidetza izan du. «Nabarmentzekoa da alkateak duen sentsibilitatea gai guzti hauetan», esan zuen

Aiestaranek. «Garrantzitsua da haurrek egiten dituzten lanak herrira zabaltzea eta horregatik marrazkien erakusketak ikusgai dago udaletxean», adierazi zuen Marimi Ugalde Irurako alkateak.

Lanaren amaiera modura, alkateak ikasleak jaso zituen atzo arratsaldean udaletxeko areto nagusian eta haurrekin egindako lanari buruz solasean aritu zen. Opari batzuk zozketatu ondoren haurren artean, merienda bat eskaini zieten.

BALIARRAIN ▶

Direktiba berria izendatu du Harkaitz elkarteak

Larunbatean egin zuten 2004. urteko balantzea Harkaitz elkartearen

N. LATABURU

Aurreko asteburuan 2004. urteko balantzea egin zuten Harkaitz elkarteak. Gai zerrandako gaiak —elkarteen inbertsioak, direktiba berriaren proposamenak, prezioen zuzenketa, berogailuak eta herriko festak— onartu eta erabaki ondoren, direktiba berria izendatu zen, honako izen hauekin: Jose Ramon Garmendia, Mila Nazabal, Maria Jesus Garmendia, Angel Maria Jauregi, Antton Irastorza eta Jokin Garmendia. Zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkio bilerara joan ziren guztiei.

Bihar emakumeen afaria

Bihar, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, afaria antolatu dute herriko emakumeentzat. Ospakizuna Zartagi jatetxean izango da gaueko 21:00etatik aurrera, izena eman duten herritar guztientzat, baldintza bakarra da: emakume izatea.

Euskal Herria euskalduntzen

ni ere bai!

MARTXOAREN
10etik 20ra
ORREAGA-BILBO 2005

korrika badator

aek

IBARRA ▶ KULTURA

Uzturpek eraturiko 'Mundua aldrebese' jaialdia bihar

Egoera xelebreek eta aldrebese hartuko dute aurtengoaren pisu nagusia

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero moduan, bihar egingo da Ibarako Uzturpe ikastolak eraturiko jaialdia. Belabietan kiroldegian egingo da 20:00etan eta aurtengo gaia *Mundua aldrebese* izango da.

Berezia, oso berezia izaten da Uzturpe ikastolarentzat urteroko jaialdi hau; izan ere ikastolako 2 urtetik gorako haur eta gaztetxo guztiek hartzen dute parte, eta azken asteetan lan handia egiten dute entseguetan, egun handian, hau da, jendaurrean ikuskizuna eskaini behar dutenean den borobil irten dadin.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBHko Lehen Zikloko eta antzerki tailerreko ikasleak izango dira hain zuzen emanaldia eskainiko duten artista txikiak. Dantza, antzerki, bertso eta zenbait xelebreek izango dira ikusgai bihar. Aurtengo izenburuak dioten bezala aldre-



Pasa den urtean Uzturpek antolatutako jaialdiko une bat. DANI GIBELALDE

beskeriak nabarmenduko dira batez ere.

Urtero gai baten inguruan egin ohi da jaialdia, eta aurtengo pertsonaia eta egoerak, denak nahasturik eta bat ez datozen moduan ikusiko ahalgo dira, desberdintasuna eta alderantzizko puntua nagusituz.

Idea bat egin dezagun horrelakoak entzungo ditugu: *Itsasoan ari dira arbolak landatzen/ itsuak ikusi etxea erretzen/ hanka motzak dabil-tza ura garraiatzen/ mutuak garrasika jendeari deitzen.*

Gaur izango dute entsegutarako azken eguna antzerki tailerrekoek eta gainerakoek ere azken prestaketak burutuko dituzte.

Gainerakoek bihar izango dute jaialdiaz gozatzeo aukera. Ibarra eta ingurukoek ikustera joateko gonbidapena luzatzen diete Uzturpe ikastolako arduradunek.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M. L. Amaro

auzoa 9 (Tolosa). 943 67 51 18

Larraia, M. I. Elbarren 95

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldia. 687 41 00 22

anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

IBARRA ▶ KULTURA

Ibarako II. Mendi Asteak emaitza onak izan ditu

Haitzetan Raju elkarteak gustura ageri da eta eskerrak eman dizkie parte-hartzaileei

I. TERRADILLOS

Bukatu berri da Ibarako Haitzetan Raju menditaldeak antolatutako II. Mendi Astea. Gustura daude antolatzaileak asteak iraun duen bitartean izan duten harreragatik.

Ekitaldi ugari izan dira, bai ikusteko, ikasteko bai eta egiteko ere; hainbat lagunek ateratako mendiko argazki erakusketa egon da ikusgai Kultur Etxean, hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, mendi irteerak, bazkariak eta antzerki saioak. Denetarik, beraz.

Hauen artean, Ibarako Jon Goikoetxea *Boli*-ren Everesteko diapositiba emanaldia nabarmendu dute antolatzaileek; munduko gailurrik altuenera igo den lehen ibartarra da Goikoetxea eta jende dezenteko gerturatu zela Kultur

Etxera azaldu dute emanaldia ikustera. Era berean, Angel Navasek eskainitako Hego Poloko ibilaldiari buruzko emanaldia ere arrakastatsua izan zen.

Erraustegien inguruan izan zen hitzaldia ere nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek. Bestalde, eguraldi txarra delata eta mendi irteerak ez ziren oso jendetsuak izan, baina ondorengo bazkarian giro oso polita izan omen zen. Antzerki saioak eman zion amaiera aurtengoari eta jendearen harrera oso ona izan zela eta ederki pasa zutela adierazi dute elkartekoek.

Aurtengoaren emaitza onak ikusita jarraitzeko nahia areagotzen zaiela diote, eta beste-tik, eskerrak eman nahi dizkie parte-hartzaile eta lagundu duten guztiei.



28. urteurrenean, 'Xebas'-i omenaldi beroa egin diote

IBARRA ▶ Herenegun 28 urte bete ziren Sebastian Goikoetxea ibartarra Guardia Zibilak hil zuenetik eta omenaldi beroa eskaini zioten Ibarako Ezker Abertzalearen zinean. *Xebas* 1948. urtean jaio zen. Hogeita zortzi urte zituen Guardia Zibilak tiroz hil zuenean. 1977an izan zen hori, eta haren jaioterrian ekitaldi ugari egin zizkieten omenaldi moduan. Atzoko omenaldian, agurra txistulari eta dantzariak egin zioten. Hitzaldia izan zen entzungai ondoren, eta amaizeko *Eusko gudariak* abestu zuten Ibarako hilerria gerturatu zirenek. *Xebas*-i omenaldia egin ostean Josexo Jauregi ere gogoan izan zuten eta lore sorta eskaini zioten urtero egiten duten moduan. I. TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶

LANA

Zute ileapaindegia.

Espereintzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 18:00etara; larunbatetan. 09:00etatik 14:00etara. Telefono zenbakia: 943 671 934.

Zerbitzaria eta sukaldaria.

Tolosan zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dira asteburutarako. Deitu 635 70 05 59 zenbakira.

Igeltseritzako ofiziala. Mutil

bat behar da, 2. mailako igeltseritzako ofiziala. Deitu

615 74 86 61 telefonora.

SALGAI

Autoa. Opel Astra 1.7 Diesel.

Luzea, 3 ate. 210.000 kilometro.

1.500 euro. Deitu 616 81 08 28

telefonora

LEITZA ▶ UDALA



Lehenengo 24az gerotzik, udaletxeko balkoitik ikurrina falta da. J. ASTIBIA

Ikurrina gai, aparteko udal batzarrean

Igor Astibiaren aldeko proposamena ere eztabaidagai izanen dute, bestela

JAIONE ASTIBIA

Bihar, ostirala, 21:00etarako, udaletxeko aparteko batzarra deitu dute, eta besteak beste gai zerrendan ikurrinaz ere ariko direla ageri da. Sei puntu izanen dituzte eztabaidagai mahai ganean, hirigintzako eta mendiko gaiak besteak beste. Horrela, aurrean azken batzarreko aktaren onespina egin eta «ikurrina» dute bigarren. Jakina da, otsailaren 24ean Leitzako udaletxeko balkoitik ikurrina kendu zutela, delako sententzia firme bati kasu eginez, eta ekintza horrek iritzi kontrajariak eragin dituela bai herri-

ko talde politikoaren artean, bai herritarren artean ere. Orduak, biharkoa da, batzarrean gai modura tratatuko den aurreneko aldia, duela hamabost egun herritar talde batek, otsaileko ohiko udalbatzarra egiten ari zirela, gaia azaldu bazuen ere.

Aparteko batzarra deitu izanaz baliatuta, «Igor Astibiaren aldeko proposamena» ere eztabaidagai izanen dute. Lehenengo azaroaren 16az gerotzik preso dagoen herritar honen espertzeratzea salatuz batera, askatasuna eskatuz herriaren egiten ari diren sinadura eta atxikimen bilketako ekimenaren baitako eskaera litzateke.

ARESO ▶

Korrika Txikia eginen dute bihar Aresoko eskolakoek

Kilometro bateko laguntza eman dute etzi Leitzaldetik igaroko den Korrikan

J. ASTIBIA

Gaur hasi da Orreagan, hurrengo 20a arte, Euskal Herri guztian barrena Bilborainoko ibilbidea eginen duen Korrika. Etsiztik iganderako goizaldean igaroko da Leitzaldetik.

Bihar, 16:15erako egin dute hitzordua Aresoko eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek eta beren festa propioa antolatu dute. Sei taldetoxotan banatu dira guztiak eta txandaka eramanen dute lekukoa, herriaren zehar eginen duten Korrika Txikian. Laisterka ibili ondoren, txokolate beroa zain izanen dute elkarrean, giroari eusteko.

Korrika bera Aresotik zuzenaz ez bada igaroko ere, bertako eskolako guraso elkartearen eta Pake Toki elkartearen artean, kilometro bat erosi eta beren laguntza emanen diote Korrikari, beraiek ere euskararen alde daudela adieraziz, *Ni ere bai* aurtengo lema bere eginda. Horrela bada, gau horretan laisterka ibili beharrek dira, kilometro batean eta prestaketarako baliatuko dute bihar bertan eginen duten Korrika txikia.

KULTURA ▶

Eskualdeko partaiderik ez da aurtengo edizioan

Larunbatean eginen dute Nafarroako Kantu Txapelketako bigarren saioa Donezteben



Iazko Nafarroako Haur Kantari Txapelketako partaideak. HITZA

J. ASTIBIA

Dagoeneko, lehenengo hilaren 19az gerotzik, martxan den Nafarroako Kantu Txapelketako aurtengo edizioan ez da gure zonaldeko kantaririk izanen. Halaxe eman dute jakitera Euskal Kantuzale Elkartetik.

Larunbat honetan eginen dute txapelketako azken kanporaketa saioa Donezteben, 17:00etatik aurrera. Bordatxo aretoan, eta 12 partaide ariko dira kantuan, denak Nafarroako mendi aldekoak, Malerreka bertakoak, Bortzirietakoak, Goizuetaldeakoak... baina Leizta eta Aresotik ez omen du inork ere izenik eman eta beraz, ez da gure herrietako kantaririk izanen. Ziotenez, «badi-rudi, justu finala den egunean, Leitzara abesbatzaren bat edo datorrela eta...», argitu zuten «haurrak bi ekitaldietarako ezin prestatu zitezkeela eta, herrikoa lantzea egokiagotzat jo dute», atzokoan. Edozein moduz, «horko umeen kantu zaletasuna handia da eta maila ere oso oso ona dute, agerian gel-

ditu izan da hori behin baino gehiagotan finalera iritsi baitira», jarraitu zuten esanez. Hori dela eta, hurrengo ediziorako kanporaketa saio bat hemen egiteko pentsamenduak agertu zituzten, eta «denboraz antolatze konpromisoa» ere hartu beharko dutela baieztatu, aurtengo ekitaldien batera ezintasuna ekiditeko asmoz.

Etziko saioan ez da bertako partaiderik izanen, eta finalera igarotzeko aukerarik ere ez, hilaren 20ean Iruñeko Gaiarre antzokian burutuko dena.

Doneztebeko saioak ez du bestelako inolako ekitaldirekin bat egiten. Finalera igaroz gero, orduan bai, izan ere, hurrengo asteburu horretan Kataluniako abesbatza bat heldu baita Leitzara, hain justu Asketa Ttiki abesbatzaren gonbidatu gisa, eta hemengo kideak izaten dira normalean, Kantu Txapelketan ere parte hartzen dutenak. Finalerako sailkatzea suertatzerako, bilerkutan ezin egon zitezkeen haurrak eta hori izan omen da kausetako bat, ziotenez.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Alegia. Erdialdean, plaza inguruan. 3 logela eta 2 bainu.

Amaroz. 80 m²-ko lurra. 3 logela. Mandio. 669 87 19 09.

Andoain. 80m². 2 logela, gazteentzat aproposa. Erabat berritua. 39.000.000 pta.

Azpeitia. Erdialdean. Bizitzera sartzeko. 90m²-koa, 1,2 eta 3 logela. Balkoia. 32.000.000 pta.

Berastegi. 70.000 m²-ko lurra + borda. 27.000.000 pta.

Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m²-ko ganbara eta garaje marrarekin. 29.000.000 pta.

Hernani. Eraikuntza handia. 3 logela hari musikalarerakin. 80 m² + 40 m² lorategiarekin. Etxe ederra. 57.000.000 pta.

Irura. 80m², 3 logela, 2 bainu. Toki eguzkitsua. Garagea eta traste-lekua. Eraikuntza berriak.

Getaria. Erdialdean, hondartzatik 2 minututara. Eraberritua eta bizitzera sartzeko.

Ibarra. Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Berogailua. 33.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. San Ignazio kalea. 3 logela, berogailua, bizitzera sartzeko.

Ikaztegieta. 100m². Eguzkitsua. Garage itxia. Egongela handiarekin.

Legorreta. Txalet abikia. Traste-lekua, terraza. Egoera ezin hobean. Bizitzera sartzeko.

Tolosa. Araba etorbidea. 100m², egoera ezin hobean. 5 logela, eguzkitsua, garage marrarekin, traste-lekua.

Tolosa. Erdialdean. Apartamento eraiki berriak. 2 logela eta 2 bainu.

Tolosa. Foru etorbidean, leku hobereanean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m² + 50 m²-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, traste-lekua, berogailua eta igogailuarekin. 64.000.000 pta.

Tolosa. Lurre auzoan. 33 m²-ko txokoa, 10.000.000 pta, tarteplantan.

Tolosa. Korreo kalea. Apartamentua bizitzera sartzeko. 1 eta 2 logela.

Tolosa. Laskorain kalea. Egoera ezin hobean. 2 logela, egongela, sukaldea eta jangela. Sabaia altuak. Etxebizitza handia

eta gazteentzat. Disenozkoa. 45.000.000 pta.

Tolosa. Solana kalea. 40m². 19.000.000 pta.

Tolosa. Zumalakarregi. 3 logela, igogailua, berogailua. 45.000.000 pta.

Tolosa. San Esteban. 90 m². 3 logela. Berogailua, eguzkitsua. 35.000.000 pta.

Tolosa. Larramendi. 75m². Igogailua. 2 gela, 2 bainu, armario enpotratua. Berogailua. Igogailua eta traste-lekua, 12 m².

Tolosa. Gudari Kalea. Terraza. Berritua. **Tolosaldea.** Etxebizitza berriak. 2 logela. Garajea marrarekin. 35.000.000 pta.

Zaldibia. 40 m². Kanpokalde. 26.000.000 pta. 669 87 19 09.

Zegama. Eraikuntza berriak. 3 logelatakoak. Kanpokaldea. 2 bainu.

Terraza 45m². 27.500.000tik aurrea.

Zizurkil. 3 logela kanpokalde. Balkoia, ganbara.

NEGOZIOAK

Ileapaindegia. Ileapaindegia alokatzeko. 90 m². Guztiz diseinatu.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Errementari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.

Tolosa. 428 m²-ko pabilioi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokiak, saihesbide ondoan. 669 87 19 09.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Triangulean eta Nafarroa etorbidean.

Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldez hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta.

Belauntza. Pabiloia 250 m².

32.500.000 pta.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 10a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aizua, Albitzar, Ajeja, Alkiza, Alzo, Amadeita, Anotoa, Anso, Balamain, Balantza, Baratzegi, Berrota, Etxauri, Herrialde, Itarsi, Nautegialde, Nara, Lergarri, Lortzeta, Oteiza, Oteiza, Oteiza, Villabona, Zuzuki
besteriak: Leizaldeko Eskola Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza, Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

08

hotzena

04

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. Maite Frankoren ipuin kontaketa liburutegian 18:00etan.

Alkiza. Edurne Pasabanen *Emakume bat eta K2* proiektzioa Kultur Etxean 22:00etan.

Amezketeta. Korrika Batzordearen bilera hamaiketako eta Korrika Txikia antolatzeko, gela polibalentean 20:30ean.

Baliarrain. Festa Batzordearen bilera 20:30ean udaletxean.

Berastegi. Tutorearen bisita KZgunean 9:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Txirene taldeak *¿A donde va esa loca?*

antzezlanaren eskainiko du Kultur Etxean 18:00etan.

Tolosa. Garizumako otoitzaldia Santa Maria parrokian 16:00etan eta 20:00etan.

Orexa. KZguneak tutorearen bisita izango du 16:00etatik 20:00etara. *Prestatu zure platerak* mintegia izango da.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Ana Jesus Ansoenaren zeramikak Saikin tabernan.

Tolosa. Matxin Labaien koadroak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Mikel Azpilikuetaoren koadroak Aranburun.

Villabona. Gorka Egurenaren argazkiak Maxola tabernan.

7.000 bidaiari egunero

TOLOSALDEA ▶ Aldiriko tren zerbitzuak erabiltzen ditu jende askok Tolosa eta Villabona-Zizurkilgo geltokietan; %99ko puntualitatea du zerbitzuak



Tolosako geltokia erabiltzen dute eskualdeko bidairi gehienek. J.SAIZAR

ERREDAKZIOA

Aldiriko tren zerbitzua 7.000 lagunetik gora erabili dute egunero lan egunetan 2004an Tolosako eta Villabona-Zizurkilgo geltokietan bere zereginetara joateko, Renfek eman berri dituen da-

tuen arabera. Zehazki Tolosako geltokian 3.087 erabiltzaile izan dira, Tolosako apeaderoan 2.101 eta Villabona-Zizurkilgo geltokian 1.943. Anoeta, Alegia eta Ikaztegieta geltokiak datuak ez dituzte eman ezagutzera.

Gipuzkoa osoan 24.747 bi-

daiari inguruk erabili dituzte aldiriko trenak. Kopuru handienak Donostia (8.611), Gros (5.448) eta Irungo (4.608) geltokiak dituzte. Guztira Irun-Brinkola aldiriko zerbitzua 7.920.000 pertsona inguruk erabili zuten iaz.

Txartelari dagokionez, %51k

hilabeteko abonoa erabili du, %34k joan-etorrikoa eta %15a joanekoa.

Erabiltzaileek nota ona eman diote jasotako kalitateari —puntualitatea, garbitasuna, ordutegia eta arreta—: 10etik 7,55. Lan egunetan Renfek 82 tren zerbitzu eskaintzen ditu Gipuzkoan eta iaz bataz beste %99,09ko puntualitatea izan zuten.

Aldiriko tren zerbitzuen erabiltzaileen soslaia ere egin du Renfek: emakume gazte, goi mailako ikasketekin eta soldapapekoa da. Datu hauek bidaiarien soziologia ezagutu eta zerbitzua beharretara egokitzeko tarteka egin dituzten inkestetatik atera dituzte. Bidaiarien %71,9 emakumeak dira, %53,5ek 16 eta 29 urte artean dituzte, %43,7k goi mailako ikasketak dituzte, %40,3k erdi mailako ikasketak, %54,7 soldatapekoak dira eta %30 ikasleak.

Trena erabiltzeko arrazoi nagusiak medioaren arintasuna (%24,6), auto ilaretatik ihes egitea (%7,5), erosotasuna (%9,4) eta prezioa (%9) dira. Maiztasuna, gertutasuna etxetik eta segurtasuna dira beste arrazoi batzuk.

AGURRAK ▶




URTE ASKOAN

Haritz Arana (Tolosa).
Gaur 2 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



AUPA KAXIANO!

Laister itsasontzi baten zure bila joango gara. Animo! Ruso, Tina eta Luismi.



AUPA AITOR ETA KOLDO!

13 neska 13 muku. Hemen nahi zaituztegu. Martxoak 8ko emakumeak.



IGOR EUTSI GOIARI

Ez dago eta zuek adinakorik, ezta gu geldituko gaituenik ere! J.T.K. Larunbateko bertsolariak.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etori:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

PILOTA JAIALDIA
korrika-ren alde
ORPELAGA-BILBO MARTXOAREN 10TIN 20RA

www.korrika.org
MARTXOAK 11
OSTRALA, 08:30EAN
DONDOSTIAKO
ATAKO B-Pilotalekuan
Banaka
BERRAONDO-CHAFEE
Binaka
TITIN III. - ELKORO
vs XALA-BARRIOLA